

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Ibilgailuen 2020ko errolda kobratzea

Iragarki hau argitaratu ondorengo hamabost egun baliodunetan jendurrean egongo da trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaindu behar dutenen 2020ko errolda, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten oharrak aurkeztu ahal ditzaten.

Jendurrean egongo den 15 egun baliodun horietan trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaindu behar dutenen erroldaren aurkako alegaziorik aurkezten ez bada, udalak zerga kobratzeari ekingo dio.

2020ko otsailaren 15etik martxoaren 15era arteko egun baliodunetan (biak barne) trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaindu behar dutenen 2020ko erroldari dagozkion aurtengo ordainagiriak prest egongo dira borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa adierazitako epean, 09:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, halaxe xedatzen baitu Zergabilketarako Arautegi Orokorrak. Kobratu beharrekoari, berriz, ehuneko 20ko errekarua ezarriko zaio. Errekargu hori eta epearen luzapena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zuhatzu Kuartango, 2020ko urtarrilaren 24a

Alkatea

EDUARDO FERNÁNDEZ DE PINEDO